

## Tolosa-Urnieta mendi zeharkaldia apirilaren 3an, Zanpatuz taldearekin

Zanpatuz mendi taldeak Tolosa-Urnieta zeharkaldia antolatu du.

Datorren apirilaren 3an izango da, igandearekin. Tolosa erdigunetik abiatuko da irteera, eta 6-7 ordu pasa ondoren, asmoa Urnietara iristea da. 24 kilometroko ibilbidearekin, eta **Uzturre, Belabieta, Goiburu, Otita** eta **Xoxoka** igaro ostean, Urnietan bukatuko da.

Gorabehera dezenteko ibilbidea da, pilatutako desnibela 1.250 metrokoa, eta antolatzaileek maila ertaineko irteera dela jakinarazi dute. Aintzat hartu behar da lehen sei kilometroak



Zanpatuz taldekoak Leitza aldean ibili ziren urteko lehen irteeran, urtarrilean.

denak goraka izanen direla, 630 metro, hain zuzen ere, Uzturreko gaina harrapatu arte. Gero nabarmen leuntzen da igoera, baina ordu dezentek dira.

Tolosara joateko tren hau-tatu dute antolatzaileek, eta hitzordua tren geltokian izango da, 07:00etan. Igandeko lehen tren izango da Tolosarantz, baina kasu, jende dezentek espero denez, tren txartela erostera garaiz joatea gomendatzen da, azken unean presaka ez ibiltzeko, eta txartelak gabe trenean ez sartzeko. Irteera Urnietara iritsita bukatuko da, bazkaria bakoitzak bere kabuz egin ahal izateko.

## Saharako haurrak ekartzeko deia



Saharako herritarren premiak handiak dira, bereziki haurrenak. Udalak udan herrira ekartzeko deia egin du. Familien beharrendira.

[ANDOAIN, 6. ORRIALDEA]

## Osasunaren aldeko martxa



Jose Maria Tellon medikua.

“Ez dugu Gipuzkoako herritarrak eta, bereziki, gure familiak etorkizuneko beste zientzialarientzat errauskailuek sortutako minbiziaren eta beste patologia batzuen ikerketetan erreferentzia izaterik nahi”, Tellon medikuak aurreko larunbateko manifestazioaren amaieran egin zuten adierazpen hori.

[ANDOAIN, 9. ORRIALDEA]

## “Argi genuen ikuskizuna Urnietako jendearekin egin behar genuela”

Miren Gojenola eta Mikel Laskurain aktore ezagunak dira biak, eta urteen poderioz antzerkigintzari lotutako alor guztietan eskarmentu handia pilatu dute.

Joxan Goikoetxea musikariaren ideia izan zen **Xabier Letek** 1982an idatzi eta zuzendu zuen “**Gabon Txirrita**” antzezla-



Miren Gojenola eta Mikel Laskurain “Gabon Txirrita” antzezanaren zuzendariak.

na berreskuratzea. Donostia 2016 ekimenetik Miren Gojenolak eta Mikel Laskurainek antzezlanazuzentzeko ardura jaso zuten, Donostian eta Urnietan uda ostean taularatuko dena.

Egitasmo honetan urnietarren parte hartzea ezinbesteko elementua izan da. Prestaketa lanen hasieran, bi zuzendariak pozarren daude Urnietako antzezleentzako jasotako erantzunarekin.

[URNIETA, 4. ORRIALDEA]



### Sormen tailerrak

Martxoak 29, 30 eta 31. Arantzubiko ludotekan

<b>11:00-13:00 Txokoa</b> 2008-2010 bitartean jaiotakoak • <b>Tailerrak:</b> esku tridimentsionala, mandalak, tenperak. Mugimendu jolasak, zirkuituak, jausgailua...	<b>17:30-19:00 Topagunea</b> 2004-2007 bitartean jaiotakoak • <b>Tailerrak:</b> serpentinaszko ontziak, lienzoan margotzea... Mugimendu jolasak: itsuaren bila, 5 zapien jolasa ...
--	---

### Ludobusa. Apirilak 1. San Joan plazan

**11:00-13:00.** 2004-2010 bitartean jaiotakoak  
Eguraldi txarra bada Egapeko frontoian.



943 008 033  
ludoteka@urnieta.eus

"EZAGUTU EUSKADI: GOZATU ETA BIZI" KANPAINA

# Euskal esperientziak Aste Santu hauetan

Ibilbide motza, plan gastronomikoa, %100 basque esperientzia..., zer nahiago duzu? Gustu adina plan baditugu familian, lagunartean edota bikotearekin egiteko. Euskadin dozenaka txoko interesgarri

daude. Horien guztien artean, Euskadiko barnealdean badira bederen bi aukera: Nazioartean sona handia hartu duen Gasteizko katedrala edota Gorbeiaiko garagardotegia. Zoaz bisitan!



Kaskoa buruan, eraikuntza gotikoaz eta bista ikusgarriez gozatzeko aukera paregabea da.

## Gasteizko katedrala

Bisitak, egunero. 10:15etatik aurrera. Hiru bisitaldi mota. Hizkuntzak: Euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez eta alemanez.

**G**asteizko erdigunean Santa Maria tenplu gotikoak hamasei urte egin ditu berritze-lanetan. Kaskoa buruan, eraikuntza gotikoaz eta bista ikusgarriez gozatzeko aukera paregabea da.

### Katedralaren bisita tenplu gotiko bat ezagutzea baino gehiago da, ezta?

Oso esperientzia berezia da. Berritze-lanek eraikuntza ikuspuntu arkitektonikotik eta arkeologikotik ezagutzeko bidea ematen dute. Katedrala Gasteizko historiaren parte da: Kanpotik gotorleku itzurakoa; barrutik, katedral gotiko batena. Triforioa izeneko goiko galeria ikusteko aukera dago; pasabideetan ibiltzea eta bertatik ikus daitekeen paisaia liluragarriak dira. Kanpandorrera ere igo gaitzke; Gasteiz eta inguruko ikuspegi zoragarriaz gozatzeko aproposa.

Kriptan, bestalde, hasierako herriaren aztarna garrantzitsuak aurkitu dituzte bertan. Museo bat egiten ari dira, poliki-poliki.

Gasteizko katedralaren alde arkitetkonikoa, arkeologikoa eta historikoa ezagutzeko aukera paregabea da.

### Bisita ezberdinak egin daitezke, ezta?

Gidatuak dira guztiak. Denak daude gurpildun aulkietarako edo mugikortasun urriko pertsonentzat egokituta. Hiru aukera daude: Katedrala (ordubete), katedrala eta kanpandorra (ordu eta laurden) edo asteburuetan katedrala eta harresia (ordu eta erdi). Gasteiz eta hiriburuko erdigunearen historia osoa ezagutzeko aukera onena da.

### Galdu ezin daitekeen aukera aproposa, beraz?

Zalantzarik ez egin. Gainera, garai desberdinetan etorrita ere, bisitariak xehetasun berriak entzuteko eta ikusteko aukera dute.

**Gomendioa:** Bisitaldia antolatzeko argi-orduak kontuan hartu. Dorrera igotzeko eta beira ezbedinen kolorez gozatzeko, bereziki.



Lehengaiak eskuekin ukitu eta garagardoa dastatzeko aukera dago Gorbeia aldeko Oiardo herrian.

## Gorbeiaiko garagardoa

Bisitak urte osoan, larunbatero. Gaztelaniaz. Bisitaldirako gutxieneko parte hartzaile kopurua sei lagunekoa da. Gehienekoa hogeai lagun.

**G**orbeiaiko parke naturala benetan ederra izanagatik, gipuzkoar askorentzat ezezaguna da. Paraje ederrez inguratuta, esperientzia atseginez goza daitezke egun hauetan Baias garagardotegian.

### Gorbeiaiko parke natural ikusgarri, euskal baserri bat garagardotegi bilakatuta. Azken hori sorpresa galanta da.

Halaxe da. Ikusgarria da ingurua. Aurrean eta atzean paraje ederrak ditugu, Gorbeia eta Orduña mendia. Nerbioi ibaiaren jaiotza bertatik bertara dago. Goiuri/Gujuliko ur jauzia ikusgarri egoten da urteko sasoi honetan.

Inguru eder horretan baserria garagardotegi bilakatu genuen. Bidaiari gara, eta Argentinan esperientzia eder bat bizi genuen garagardo ezberdina dastatu genuenean. 2008an ideia garatzen hasi eta 2010az geroztik garagardo egile eta ekoizle gara.

**Garagardoa dastatzea esperientzia bilakatu duzue. Zer nolako harrera jasotzen**

### ari zarete zuen baserrira doazen bisitarien aldetik?

Ezusteko atsegin horietakoa hartzen dutela esan genezake. Garagardoa egiteko prozesua ezagutzeaz gain, orain arte dastatu gabeko zapore ezberdinak deskubritzen dituzte. Larunbat goizetan atea irekitzen ditugu, aldeztatik lotutako bisitariarekin. Gure garagardoaren ekoizpena eta prestaketa ezagutzearekin batera, dastaketan parte hartzen dute.

### Barcelona Beer Challenge nazioarteko garagardo azokatik iritsi berri zarete, sari eta guzti.

Halaxe da, eta oso pozik gaude. Bultzadaxo bat da aurrera egiteko. Nazioarteko azoka horretara hamasei herrialdeko bostehun ekoizle bertaratu ginen eta epaimahaiak guk ekoiztutako "Baias Ipa" eta "Kerala" garagardoa saritu ditu. Orain urte batzuk mar txan jarritako negozioarekin aurrera egiteko bultzada izan da. Garrantzia handiko sariak dira.

Zuhaitzaren egunaren seigarren edizioa Berrasoeta parkean

## Kimu berrien landaketa ikasleen laguntzarekin

**Egape ikastolako** eta **Presentacion de Maria** ikastetxeko bosgarren mailako ikasleak izan ziren Zuhaitzaren egunaren seigarren edizioeko protagonistak. Akan kalean, Berrasoetako parkearen ondoan, lanari ekin aurretik lorazainen argibideak jaso zituzten. Aurten, **Magnolia kobus** izeneko 9 zuhaitz landatu dituzte. Udal ordezkariak eta irakasleak izan ziren ikasleen lanaren lekuko. Guztia zuzentzen Hirigintza saileko **Mikel Iraola** aritu zen. Ondo gogoan du sei urte direla ikastetxeekin batera zuhaitz berriak aldatzen hasi zirenetik, "orain arteko esperientzia ona izan da. Aurten eguraldi kaskarra egin du landaketa astebete atzeratu egin behar izan da, baina ikusten ari gara aurtengo ikasleek ere ekimena gogoz hartzen dutela". Eta aurreko urteetako lanak bide onetik al doaz? Kimu haiek dagoeneko zuhaixka direla dio Iraolak: "Egia esan herritarrak egindako landaketa haiek errespetatzen ari dira, eta denak aurrera doaz: udaberriari lotu, eta udazkenean hostoa erortzen zaie".

Magnoliak landatu dituzte aurten, eta haien ezaugarriak hauexek dira: "Tamaina erdiko hazkundera izango dute. Udaberriari lotu, eta hosto zabalekoak dira. Ne-guan historik gabe geratzen dira".

Gaztetoak ingurua gehiago kontuan hartzea helburu dute ekimen honekin: "Eurak aldatutako zuhaitzak izatean identifikazio bat sortzen da. Zuhaitzaren bizitza eta hazkuntzaren lekuko dira, eta horrela gure asmoa lotura bat sortzea da".

Ekimenaren argazkiak eta bideoak aiurri.eus webgunean ikusgai daude.



Mikel Iraola Hirigintzako Udal teknikaria ikasleekin batera, astelehenean.



Bi ikastetxetako bosgarren mailako ikasleek parte hartu dute ekimenean.



Zuhaitzaren egunaren seigarren edizioa da aurtengoa.

### AUKERAN KONPAINIAREN ESTREINALDIA IRISTEAR DA

Aukeran dantza taldeak martxan dituen ikuskizunak eskaintzeaz gain, berriak lantzen dihardu burubelarrari. Azken hilabeteetako lanaren emaitza izango da Maurizia izeneko ikuskizun berria. Abenduaren 12an entsegu irekia egin eta gero, konpainia azken xehetasunetan buru-belarri lanean ari da.

Estreinaldiaren data ipinita dago:

**Maurizia.**

Apirilak 9, larunbata.

20:00. Sarobe.



## Aste Santu oparoak Gaztelekuaren eskutik

Aste Santuen atarikoan eta Pazko astean, Urnietako Gaztelekuak jardura ugari antolatuko ditu. Urnietan bertan burutuko dira hainbat ekitaldi, besteak beste, sukaldaritza tailerra edota erlaxazio ariketak. Horiez gain, irteera interesgarriak

iragarri dituzte. Hala nola, Iruneko skate park batera, zinemara eta, azkenik, Nafarroako Igantzi herrian dagoen Irrisarriland parkera. Ostiral honetan amaitzen da izena emateko epea. Egitarau osoa ikusgai dago aste-kari honetako Agendan.

## 13-17 urte arteko gazteei zuzendutako lehiaketa

etxetik 10-apirilak 3 •

# #Instant1ean

lehiaketa

13-17 urte BADITUZU, zure irudimenak saria du!!!

bidaiak, 300€ gailutan, 150€ gailutan, zozketak eta sorpresa gehiago

Parte hartu:

- @gipuzkoangazte jarraitu,
- argazkia atera eta deskribatu,
- Traoak gehitu: #Instant1ean + zure gaztelekuoa

Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa

GAZTELEKUA

gipuzkoangazte.eus/instant1ean/lehiaketa

Urnietako Gaztelekuetik herriko gazteak "Instant1ean" programan parte hartzera gonbidatu nahi dituzte. Aldundiko Gazteria sailak sustatuta, nerabeen artean teknologia berrien arriskuak saihestu nahi dituzte. Helburua ez da txikia: Gazteek teknologiaren erabilerari dagokion portaera eta jarrera egokiak barneratzea, Interneten ondo nola jokatu ikastea, eta sarean beren eskubideak eta betebeharrak zein diren argitzea.

Gai honi buruz azken asteetan Urnietan eta hainbat tokitan tailerrak landu dituzte, eta apirilaren 3ra bitarte 13-17 urteko gazteek #Instant1ean lehiaketan parte har dezakete.

Instagram sare soziala erabilita, gazteen artean irudimena esnarazi nahi dute. Gipuzkoangazte.eus webgunean lehiaketaren xehetasunak eskaintzen dituzte: "Lehiaketaren helburua da, Instagramen irudi baten bitartez, zure bizitzako instant bat azaltzea: zer duzun gustuko, musika, kirola..., nola bizi zaren, edo zure eguneroko une esanguratsuak zein diren azaltzea. Lehiaketa apirilaren 3an bukatuko da, eta bertan parte hartzea aukerakoa eta doakoa da".

*"Praktikan sorpresa atsegina hartu dugu. Nahiko arduratsuak direla esan daiteke, euren identitate digitala nahiko ondo zaintzen dutela esango nuke"*

Unai Esnal

Doakoa, eta sari politik eskaintzen dituenak gainera. Besteak beste, bidaiak, eta 150-300 euroko erosketatxartelak. Eta sariez gain, parte hartzaileen artean zozketak iragarri dituzte.

Lehiaketa honekin Aldundiak eta Udal erakundeek identitate digitalaren arriskuez informazioa zabaltu nahi dute, eta baita cyberbullying eta antzeko gaitz berriez ohartarazi ere. Lehiaketaren atariko modura Urnietan egindako tailerrekin, **Unai Esnal Gaztelekuo dinamizatzaileak** inpresio ona hartu du: "Urnietan tailer ezberdinetan hasieratik ikusi dugu gai hauekiko alderdi teorikoa ondotox ezagutzen dutela. Eta praktikan sorpresa atsegina hartu dugu. Nahiko arduratsuak direla esan daiteke, euren identitate digitala nahiko ondo zaintzen dutela esango nuke".

“GABON TXIRRITA” IRAILAREN 10EAN DONOSTIAN ETA SANMIELETAN URNIETAN

# “Argi geneukan antzezlanaren antzezlana urnietarrekin egingo genuela”



Miren Gojenola (Lekeitio, 1968) eta Mikel Laskurain (Bergara, 1965) Urnietan eta Donostian irailean taularatzeko prestatzen ari diren “Gabon Txirrita” antzezlaren zu-

zendariak dira. Obrak eskatzen duen aktore multzoa Urnietako herritarrekin osatu ondoren, asteartean eta ostegunetan ari dira entseguak burutzen.

## Noiz murgildu zineten antzerki munduan?

**Mikel Laskurain:** Institutuko antzerki tailerrean hasi nintzen; ni baino zaharragoak zirenak Donostia joan ziren antzerkia ikastera, eta neu ere animatu egin nintzen. Donostian egin nintuen hiru urte antzerki eskolan eta azken kurtsoan geure talde propioa sortu genuen, “Hika Antzerki Taldea”. Hikarekin ia urtean ikuskizun bat egiten genuen. Hamabi urte egon ginen taldean. Eta gero beste talde batzuetan, telebistan, zinean, argi teknikari bezala, denetik pixka bat eginez, baina gehienbat, antzerkiari lotuta aritu izan naiz.

**Miren Gojenola:** Ikastolan urte batean egin nuen tailerren bat, baina, 18 urterekin Donostiako Antzerki Eskolara etorri nintzen, eta hiru urte bertan egon ondoren, Hika Antzerki taldearen sorreran parte hartu nuen. Mikelek eta biok ibilbide berdina egin dugu. Goenkaleen hamabi urtez aritu nintzen, Amaia pertsonaia interpretatzen, ondoren, entseguetako zuzendari moduan jarraitu nuen, eta azkenik, paper txiki bat eman zidaten, moja bat interpretatzeko. Goenkaleko esperientziaren ondoren, antzezteaz gain, zuzendari laguntzaile bezala aritu izan naiz, eta antzerki tailerrek zuzentzen ere aritzen naiz.

## Zer duzue gogokoago, jendaurrean antzezteko edo telebistan interpretatzeko?

**M.L.:** Jendaurrean aritzen naiz errazago, uste dut gehiagotan egin dudalako izango dela. Beste erritmo bat da, gehiago entsaiatzen da. Seguruago joaten zara. Telebista azkar doa, gainera, behin egin eta betiko ahaztu egiten da, ez baituzu berriro errepikatuko gauza bera. Antzerkia nahiago dut.

**M.G.:** Antzerkia asko gustatzen zait, baina telebista ere bai, uste dut paperak zeresan handia duela.



“Gabon Txirrita Joxan Goikoetxea musikariaren ideia bat da, eta Donostia 2016tik etorri zitzaigun eskaera”.

## Aktore, gidolari, zuzendari... zer duzue gustukoagoa?

**M.G.:** Berez, aktore lanetan gusturago aritzen naiz, baina azkenaldian asko ari naiz zuzentzen, tailerrek ematen ditut, kanpotik lan asko eginez. Eta gustura nago, hor aurkitu baitut argi ez neukan lan ildo bat.

**M.L.:** Ni ere gustuena aktore moduan. Zuzendari bezala ez naiz askorik aritu, gehiago teknika eta ekoizpen lanetan, eszenografiak egiten, asmatzen, argi teknikari moduan...

## Gogoan duzuen une polit bat esango al zeniguteke?

**M.L.:** “El hijo de la novia” antzezlarekin estatu osoan zehar gabiltza, produkzio handi batekin. Jerez de la Fronterako emanaldiaren bukaeran jendea txaloka hasi zen, eta zutik bukatu zuten, eta palmak joaz. Berezia izan zen, izan ere, andaluziarrak oso espresiboak dira.

**M.G.:** Ez nuke momentu bakar bat aipatuko, ikustera jende asko etorri delako, edo txalo zaparrada handia jaso dugula-

ko, une bereziki ederrak hainbatetan izaten baitira.

## Irailean taularatzeko den “Gabon Txirrita” antzezlana zuzentzen ari zarete. Nolatan murgildu zineten egitasmoan?

**M.G.:** Joxan Goikoetxea musikariaren ideia bat da, eta Donostia 2016tik etorri zitzaigun eskaera. Lan hau eskaini zigutenean, ikusi genuen, nik zuzendaritza eta Mikelek arlo teknikoa eramanez, biok bat eginda, eramangarria zela guretzat. Duela 34 urte Xabier Leteren eskutik egindakoaren ahalik eta antzekoena egitea izan zen enkargua. Hasieratik argi genuen ikuskizuna Urnietako jendearekin aurrera eramanez behar genuela, eta horretan ari gara.

**M.L.:** Herri antzerkian, bolondres moduan, askotan parte hartu izan dugu. Hernanin, Bergaran, Lekeitio..., deitu izan diguten bakoitzean prest egon izan gara. Beraz, badugu eskarmentua kaleko jendearekin lan egiten. Gertukoa egiten zaigu, ez zaigu batere kostatzen.

## Asko kosta al zaizue antzezteko prest dauden herritarrek aurkitzea?

**M.G.:** Aurretik Urnietan egin ziren hiru herri ikuskizunetan parte hartutakoei eta antzerki tailerretakoei egin genien deialdia lehendabizi, eta erantzun ona jaso genuen.

**M.L.:** Bai, pozik gaude erantzunarekin, aktore multzoa osatuta dago, dagoeneko ia dena lotuta daukagu, eta gainera oso sentsazio onekin.

## Balorazio positiboa egiten al duzue Urnietan topatutakoaz?

**M.G.:** Antzezlaren irakurketa jende asko etorri zen, eta etorritako guztiak baiezkota eman ziguten. Ardura gehien jende guzti hori guztia nola batu edota ordutegia egokitzeak sortzen zidan, bakoitza bere zereginetan ari delako, baina printzipioz, badirudi dena arazorik gabe doala, jendeak oso serio hartu baitu. Beraz, balorazioa oso positiboa da.

**M.L.:** Gainera, etorri den jendeak badauka esperientzia pixka bat, badaki zer nolako konpromisoa eskatzen duen ho-

*“Egunerokotasun bat erakusten duen komedia bat dela. Sagardotegi mundua eta abar. Txirritaren bizitzari errepaso bat da, umoretik”*

nek. Baiezkota eman dutenek badakite non sartu diren eta orain arteko entsaietan jarra on hori nabaritu dugu.

## “Gabon Txirrita”ren duela 34 urteko bertsioa aipatu dugu. Orduko emanaldiekin parekatuz aldaketa asko aurreikusten al dituzue?

**M.G.:** Ahalik eta fidelenak izango gara testuarekin. Xabier Lete berak ere jatorrizko testutik gauza batzuk kendu eta beste batzuk erantsi egin zituen. Guk ere, dena osatuta daukagunean erabakiko dugu. Gero, 1982an eta 2016an ezin litekeela berdina izan konturatu behar dugu. Garaian garaikoa. Horrela, emakumeen parte hartzea handiago izango da, atrezzoak aldatuko da, estetika aldatuko da, eszenatokiko mugimenduetan aldataketak izango dira, musika aldatuko da..., hau da, kanpoko itxura aldatu egingo da, testua mantenduz.

**M.L.:** Orduan baino bitarteko gehiagorekin ari gara lanean, esate baterako, foko gehiago sartuko ditugu, Letek ez zituen sartu, ez zeuzkalako, izan balitu hark ere sartuko zituzkeen.

## “Gabon Txirrita” zer antzerki mota den galdetzen duenari zer erantzun zenukete zuek?

**M.L.:** Egunerokotasun bat erakusten duen komedia bat dela. Sagardotegi mundua eta abar. Txirritaren bizitzari errepaso bat da, umoretik.

**M.G.:** Duela 80 urte hil zen Txirritaren bizitza da. Datoren ikusleak, iruditzen zait, Txirrita nolako zen jakiteko kuriositatea eduki beharko lukeela.

Galde-erreguetan agertu ziren alderdien arteko desberdintasunak

## Martxoko Udal batzaraldia



Martxoaren 8ari buruzko adierazpen instituzionala eta baita Saharako herrialdearen aldeko eta herri kurduarekiko mozio bana ere aho batez onartu zituzten martxoaren 15eko Udal batzaraldian.

Aztergai gutxi zegoen martxoko Udalaren osoko batzaraldian, eta guztien artean nabarmendu behar da aho batez onartu zirela Martxoaren 8ari buruzko adierazpen instituzionala eta baita Saharako herrialdearen aldeko eta herri kurduarekiko mozio bana ere.

Galde-erreguen tartean ikuspegi ezberdinak agertu ziren, alderdien arteko ika-mikak sortuz.

### SOZIALISTEN GALDERAK

**Consuelo Frutos** PSE-EEko zinegotziak urtarrileko batzaraldian hainbat galdera egin zizkion alkateari, eta honek erantzunak idatziz emango zizkiola erantzun zion. Urte hasieran herritarrei bidalitako gutunari buruzkoa zen galderetakoa, beste bat partaidetzari buruzkoa eta hirugarrena kiroldegiko tabernari buruzkoa.

Sozialisten bozeramaileak erantzun horiek astearteko plenoan hasi aurretik jaso zituelako kexa agertu zuen. **Mikel Pagolak** araudia betez jokatu zuela erantzun zion.

Frutosek bi hilabeteko denbora tarte horri buruz bere iritzia heldu zion. Hari erantzuteko EAJ-PNVko bozeramaile **Maribel Vaquero**k hitza hartu zuen: "Pleno honetan, komunikabideen aurrean, plazaratzen ari garen arazoak ez du errealitatearekin bat egiten. Hiru galdera xume dira eta kiroldegiari buruz alkateak une horretan bertan ez zuen informazio nahikorik emateko. Galderak Antolaketa batzordean egingo bazenituzte, eta denbora tarte honetan bi egin dira, erantzunak hor bertan jasoko zenituzkete. Beraz, eskatuko genizuke intentzionalitate hori alde batera uztea".

PSE-EEko bozeramaileak batzordeetan eta plenoetan galdera egiteko eskubideari eutsi zion.

### EH BILDUREN HASERREA

Ika-mika hori amaituta, **Mikel Izagirre** EH Bilduren izenaren haserre agertu zen kiroldegiaren esleipenak lehendik zegoen enpresa berdinen eskuetan jarraitzen duelako. Larria iruditu zitzaion hori: "Kiroldgia kude-

atzeko lehiaketa berria ireki zen bere garaian. Esleipena ere mar txan jarri zen. Gaia bukatutzat eman genuen, eta asteburu honetan udaletxetik kanpo jakin dugu oraindik ere kiroldegiaren kudeaketa lehengo enpresak dararamala. Tartean alegazioak egon direlako. Prozedura administratiboa ezabatu eta esleipena galdu zuenak kiroldegia kudeatzen jarraitzen du. Bilera asko egin ditugu, Foru diputatua ere kiroldegian izan dugu eta ez dugu inongo informaziorik jaso. Gai hau isilpean gordetzeko gobernu taldearen jokabidea auzitan jartzen dut. Jakin nahi nuke zein arrazoi dauden isilpean jarraitzeko".

**Mikel Pagolak** eman zion erantzuna, neurri batean arrazoiak emanez: "Gobernu taldetik ez dizuegu komunikatu, eta akats hori aitorzen dugu. Baina ez da ezkutatzeko asmoa zegoelako. Jadanik prozedura osoa Udalaren webgunean publikatuta dagoelako. Beraz, gaizki komunikatu dugula onartzen dizut baina ez ezkututzen saiatu garela".

"UDAk bere ondarea garbituko du", oharra kaleratu du

## UDAREN ondarea, herriari

Asteazken arratsaldean, martxoak 16, UDA plataformak bere ondarea herriko lau elkarrean artean banatzeko ekitaldia antolatu zuen Saroben.

### Postontzia

"UDAK 2007/2011 agintaldian alkatetza eta gobernu taldea izan zituen. Aldi horretan, zinegotziak, euren ordainsari guztiak plataformari eman zizkionten. Alkateak ere, alkate bezala zuen soldatak bere aurreko jardueran zuen soldata gainditzen

zuen diru guztia plataformari eman zion. Horrek guztiak gaur egun oraindik mantentzen dugun likidotasun bat sortu zuen zenbait erakunderi laguntza eman badiegu ere. UDAko kideen arteko gogoeta ondorengo izan da: Urnietako herriak eman digu dirua eta Urnietako herriari itzuli nahi diogu. Horregatik, banaketa egiterakoan, gure erabakia ondorengo izan da: **Caritas Urnieta, Elikagaien Bankua, Pausoka** eta **Super H** elkarrean artean banatzea.

*"Banaketa egiterakoan, gure erabakia ondorengo izanda: Caritas Urnieta, Elikagaien Bankua, Pausoka, Super H elkarrean artean banatzea"*

Azkenik, gure proiektuari laguntza eman zioten urnietar guztiei bihotzez eskertu nahi diegu. Horiek ere, gure erabakiaren partaide egin nahi ditugu".

## Odol emaien hitzordu berria ostegun honetan

Ostegun honetan odol emai- leek hitzordu berria dute Urnietan. Ohi bezala, bolondre-

sek ambulatorio zaharrera joan beharko dute odola ematera, 18:30etik 20:30era.

## Garbiketa lanak



Garbiketa lanetan ari dira Urnietako hainbat tokitan

Baso Lan taldekoek Lekun erreka ingurua eta Berrasotako hariztia garbitu dituzte. Bestalde, Udalak adierazi duenez, Montefrio baserri- Adarraraino doan estratzen

hasiera bukatzen ari dira. Gerorako utziko dituzte Munniskuetik Onddiko puntara doan ibilbidea eta baita Mikelabi eta Larrabil inguruko ibilbideak ere.

## Ordainketak hornitzaileei

Udalak hornitzaileei egin beharreko ordainketa guztietatik, fakturen %99 hilabeteko epean ordaintzen dituela

adierazi du Udalak. Hau da, legeak ezarritako bi hilabeteko epe muga baino 30 egun lehenago.

## Okindegi berria zabalik San Juan plazan



Sarobetik gertu dago 2KN kafetegi berria. Astelehenetik igandera zabalik dago.

Elizaren ondoko dendatxoan itxi eta hilabete gutxira zabalik dago plazan okindegi-kafetegi berria, 2KN izenekoa. Astelehenetik igandera zabalik dago, goizeko 08:00etatik aurrera 14:00ak arte.

Arratsaldetan, astelehenetik ostiralera 16:00etan irekitzen dute 20:00ak arte. Larunbatean, berriz, 17:00etan zabalitzen dute. Igande arratsaldean, ordea, itxita egongo da.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



IXIAR ARIN ARRIETA EUSKALTZALEA OMENDU ZUTEN "MARTXOAK 8 EMAKUME" EKIMENEAN

# Aberritzat euskara du

Aberritzat euskara duen pertsona da Ixiar Arin Arrieta. Frankismoaren garairik latzenez euskalgintzan jota ke aritu zen, Aita Larramendi ikastolaren sorreran, lehen euskara klaseak ematen,

euskarazko antzerkigintzan... Egindako lan guztiaren aitormen gisa, Martxoak 8 emakume ekitaldiko izendatuetako bat izan da berriki.

## Zer moduzko ekitaldia iruditu zitzaizun martxoaren 5ekoa?

**Ixiar Arin:** Gustura senitu nintzen, erabat. Urtero joateko ohitura daukat ekitaldira, baina ez da gauza berbera kanpotik edo barrutik bizitzea eguna. Egia aitortuko dizut, poztu egin nintzen eguraldia goibel samarra atera zelako eta ekitaldia formatuz laburtu egin behar izan zelako. Neure burua ez bainuen ikusten lekukoa eskue-tan hartuta eta kalejiran; lotsa ematen zidan halako protagonismoa hartu beharrean izango nintzela pentsatzeak.

## Beharrezkoak iruditzen al zaizkizu horrelako aitormen ekitaldiak?

**I.A.:** Jakina! Polita, xumea da ekitaldia, baina egundoko indarra dauka. Herriko emakumeak bistaritzen ditu, eta laguntzen du balorean jartzen horien jarduna. Izendapen guztietatik, nezakari arlokoa azpimarratuko nuke. Ahaztu egiten baitzaigu baserritik datozkigula sus-traiak euskaldunoi. **Milagros Sorra-rain** izan da nabarmendua aurtan; baserrian bizi den, baserritik bizi den emakumea. Bez-eroak ez gara ohartzen merkatuko baserritarren bizimoduaz, baina pentsatzen jartzen baza-ra, badute meritua. Gure amonarekin gogoratzen naiz; hark, bere ereduarekin, argi utzi zigun etxeoandrea izan dela fami-liaren baserria bideratu due-na betidanik, bera izan dela be-netako zutabea, eta geroaren eustaile, sukalde lanak eginez, seme-alaben heziketa eta etor-kizuna ziurtatuz, udaletxean eta behar zen tokietan gestioak eginez...

## Frankismoan euskararen alde ausarki jardun izanagatik izenda-tu zaituzte...

**I.A.:** Pertsona guztiek gauzak egiten ditugu momentu jakinetan, obligazioa ikusten dugulako eta kontzientziak eskatzen digulako, ez bestegatik. Horixe gertatu zitzaidan niri ere garai hartan. Ez da lan erraza fran-kismoa bizitu ez zuenari azal-tzea euskarak orduan jasaten zuen zapalkuntza. Erdera zen nagusi, eta han ez zen ausar-tzen inor euskara euskaldunon hizkuntza zela aldarrikatzera.



Ixiar Arin Bastero plazan.

Egoera hartan, niri, euskaldun bezala, barrutik irten zitzaidan euskaraz ez zekitenei erakusten saiatzeari. Gazte izateak ematen duen ausardia, errebel-dia, indarra!

## Nondik datorkizu euskaltzale-tasuna?

**I.A.:** Etxean jasotakoa da. Gu-rasoak izan ziren euskarareki-ko kontzientzia anai-arrebei sartu zigutenak. Aitak beti kontatu izan zigun gerra aurre-tik euskara zenbat zegoen za-baldua, gerrarekin batera zen-bat zapaldu zen... "Euskararik gabe euskaldunok ez gara ezer" ideia hezurretaraino sar-tu zigun. Beste etxeetan akaso seme-alabei trabak jarriko ziz-kieten pauso bat aurrera era-man ez zezaten, "arazoetan" sartu ez zitezaten, baina geurean ez genuen halakorik sentitu.

## Oso gaztetan hasi zinen euskara klaseak ematen...

**I.A.:** Gogoan daukadan lehen-biziko errebel-di ekintza txikia, Milagrosako mojen eskolan izan zen. Hamabi urte nituen eta bazen moja frankista Mila-grosetan; kantuan entseiatzen ari ginen, eta ez dakit zer zela eta sutu egin nintzen, eta denen aurrean, "yo no soy española" ohikatu nuen. Armonioa jotzen ari zen moja zutitu, eta jenio bizianesan zidan: "¡Te voy a dar un bofetón!".

Garaitsu hartan, **Mariaren Alabak** izeneko elizaren aterpe-ko elkartearen ibiltzen ginen, **Jua-nita Alkain** euskaltzaleak doain-tzan eman zuen etxean. Era-

kundea zuzentzen zuten apaize-kin geure borroka txikiak eduki ohi genituen, gogo jardunak-eta antzeko ekimenak euskaraz egin zitezaten. Apaiza batek poli-tika egitea leporatu zigun Do-nostiako gotzaintzaren aurrean, euskaraz aritzen baikenen neska batzuk kuadrilan. Izan ere, 17 urte bete berritan-edo erabaki genuen euskaraz hastea. Kalean euskaraz sentitzen gintuztene-an, "¡Qué ridículas!" entzun behar izaten genuen batzuetan, baina harro jartzen ginen, bide horretatik segi behar genuela ikusten genuen. Orduantxe eman nuen pausoa eraldun talde bat bildu eta haiei euskara erakusteko, Juanita Alkainen etxean bertan.

## Nola zegoen antolatuta eskola hori?

**I.A.:** Nahiko ekimen pertsonala izan zen. Nik ez neukan presta-kuntza akademikorik, eta bo-rondate hutseko gauza izan zen, klandestino, orduan Oñati-biak eta Altunak argitaratuta-ko material bakarrarekin.

## Euskarak Andoainen mendeetan bizi izan duen egoerarik penagarriena bizi zuen frankismo-an...

**I.A.:** Halaxe zen. Errealaren euskara galtzera zihoanaren sentzazioa, eta hil ala biziko erreakzioa izan zen hura. Egia esanda, eskola horrek ez zuen askorik iraun, eta geroxeago Iñaki -nire anaia gaztea-, **Iñake Beraza** eta **Arantxa Irulegi** etorri ziren; horiek antolatuago jar-dun zuten.

## Aita Larramendi ikastolaren sorreran ere topatzen zaitugu...

**I.A.:** Esango dizut nola izan zi-ren lehen pausoak: **Goena** abi-zeneko Labordeko injenieri batek bertako bi langile eus-kaltzaleei, **Joxe Mari Huiziri** eta **Joakin Esnali**, ikastola sortzea tentatu zien. Hauek **On Euge-nio Arregi** apaizarekin jarri zi-ren harremanetan; honek ere egitasmoa buruan zerabilen ordurako. Bada, Arregik, **Jose Luis Aresori**, **Joseba Agirreri**, **Moises Larrañagari**, **Mari Paz Ar-tolazabali** eta bostoi gonbitea zabaldu zigun, eta horrela osatu zen lehen zuzendaritza bat-zordea. Ahalegin handiko ur-teak izan ziren, eta batik bat gurasoena izan zen meritua aurrera egin zezan ikastolak 1963az geroztik.

Aitortu behar da **On Euge-nio Arregi** salbazioa izan zela Andoaingo herriarentzat eta euskararentzat.

## Zeu ere irakasle izan zinen ikas-tola hartan...

**I.A.:** **Mari Paz Artolazabal** eta **Ma-rimi Ugalde** izan ziren lehen an-dereñoak, ni laguntzailea baino ez nintzen orduan. Nolanahi ere, legez kanpoko ikastola zen, oso zaila zegoen irakaslerik era-kartzea, eta niri irakasle gisa jarduteko proposatu zidan **On Eugenio Arregik**. Urte batzuk egin nituen beraz, harik eta haurdun geratu nintzen arte. Utzi egin nuen irakaskuntza; halakoa zen garaiko mentali-tatea. Gerora damutu izan naiz hartutako erabakiaz.

Hori bai, euskarazko klaseak ematen jarraitu nuen gerora, hezkuntza formalaz aparte. Batetik ikastolako gurasoekin, eta bestetik Ondarretako ikas-tetxeko 12 urteko ikasleekin.

## Urteen joanak ematen dizun eskarmentu eta ikuspegiarekin, nola dakusazu euskara? Nola bere etorkizuna?

**I.A.:** Nahiko ezkorra naiz. Min-garria egiten zait egungo egoe-ra. Batetik, ezin da ukatu zen-bat aurreratatu den makina bat arlotan (hezkuntza, komunika-bideak...), baina bestetik, ai-tortu behar dut etsita itzultzen naizela etxera, bilobaren bila ikastolara joaten naizen bakoi-

*"On Eugenio Arregi apaiza salbazioa izan zen Andoaingo herriarentzat eta euskararentzat"*

*Ixiar Arin*

tzean: ikastolan ibilitako gura-so edo eta aitona-amona ugari gaztelaniaz sentitzen ditut bar-ra-barra; euskara umeekin bar-rik darabilte. Orain hama-bost urte gehiago entzuten zen euskara Andoaingo kaleetan, edo eta, esaterako, herri txiki euskaldunetan.

Bestalde, ezinegona eragiten didate gizartearen gidatzeko agin-dua daukaten politikoei ere. Ez ditut ulertzen **Baztarrika**, **Urkullu** eta antzekoen diskur-tsoak. Kontzientziak eta ausar-diaz jokatu beharko litzateke, euskara benetan normalizatzea nahi badugu. Jai daukagu "in-positioa" hitza entzun orduko kikiltzen bagara, eta kalkulua elektoralen arabera jokatzeko badugu. Benetako inposizioa, euskaraz bizi nahi dugun eus-kaldunok jasaten duguna da.

## Euskara eta emigrazioaren inguru-ko mahai-inguruan parte har-tu duzu berriki, 400. urteurrena-ren harira...

**I.A.:** Konplexua da emigrazioa-ren gaia, egiatan. Ezin da ge-neralizatu, baina bi arotan be-reiztuko nuke. Gerra ostekoa eta 60 hamarkadaz geroztika-koa. Lehenengoan, tartean ba-ziren errepublikanoak izatea-gatik zapalduak izan zirenak, eta isil-isilik, bizimodua atera-tzera soilik, eta etorri zirenak. Baina baita ere, irabazle senti-tu eta "habla en cristiano" bot-tatzen zizutenak hitzetik hort-zera. Min handia egin zuten azken horiek, eta bereziki gure gurasoek sufritu zuten horien "inbasioarekin".

Bigarren uholdeak nekaza-ri xumeak ekarri zituen batez ere, traktorearen asmakizuna zela eta beren jaioterrian lanik gabe geratu zirenak. Hori-ek Andoain erabat eraldundua topatu zuten; beren kulturari eutsi zioten, eta batzuk euskal mundura integratzen saiatu zi-ren, gau eskoletara janaz, ume-ak ikastolara bidaliz...

## Bidaia Belgika aldera



Belgikako hiri ezagunenak bisitatu zituzten: Brusela, Gante edota Anberes.

Andoaingo Aita Larramendi Ikastolako Batxilergoko lehen mailako ikasleak Belgikako Mechelen herrian egon dira, bertako ikastetxe batekin antolatutako elkartruke programari esker. Lehendik belgikarrak Andoainen izanak zirenez ikasleek aurrez elkar ezagutzen zuten, eta honenbestez, segituan egokitu ziren

bertako familia eta egunero-kora. Familiekin egindako jarduez gain, Belgikako hiri ezagunenetarikoak ere bisitatu zituzten: Brusela, Gante edo Anberes, besteak beste.

Ekimenaren bidez Ikastolako ikasleen nazioartekotzearekin eta kulturen arteko elkartrukearekin duen konpromisoa berretsi du.

## Erroma aldean bidaiari



Leizaran ikastetxeko hemeretzi ikasle eta bi irakasle Erroman izan dira.

Aurreko astean, Leizaran ikastetxeko DBHko laugarren mailako ikasleak Erroman izan dira. Guztira, 19 ikasle eta 2 irakasle. Batikanoa, Coliseum, Erromatar foroa..., kultur eta historia bidaia izan zen. Aisialdiaz

gozatzeko aukera baliatu zuten, bide batez. Egun horietan bertan estatu mailako eta Europa mailako ikasle askorekin bat egin zuten, guztiak ere ikas bidaian baitziren. Hegazkinean egin zuten joan-etorria.

## Furgoneta bidaiarien bilkura Goiburu aldean



Asteburu osoko egonaldia egin zuten Andoain aldean, besteak beste, bidaiari bakoitzak dituen azpiegiturak erakutsiz. ©LosaMoreno

“Isilean” Pello Ulaziaren erakusketari bisitaldi gidatuak

# Aitatasuna eta etxeko lanak, erakusketa Basteron



Pello Ulaziak azalpenak eskaini zizkien erakusketa gelara hurbildu ziren ikasle taldeei.

**B**asteroko erakusgelan jarritako argazki, objektu eta ikus-entzunezkoen bitartez, Pello Ulaziak aitatasuna, maskulinitatea eta etxeko espazioaren dimentsio politikoa jorratu ditu. Erakusketa apirilaren 9ra arte egongo da zabalik, astelehenetik ostiralera, 18:00etatik 20:00etara, eta larunbatetan 18:00etatik 20:30era.

Erakusketa egileak berak bizi izan duen esperientzia pertsonalaren ondorioa da. Bi haurren aita den aldetik hamar urtetan etxeko espazioan hartu izan dituen ardurek inspiratu dute. Argazkiez, eskulturez eta ikus-entzunezkoen baliatu da horretarako. “Efimeroak diruditen etxe barruko ekintzatan edertasuna ere topa daitekeela erakutsi nahi dut”, adierazi du Pello Ulaziak. Isileko lanak dira, erakusketaren izenburuak dioen moduan.

Gizartean nagusi diren eredu inguruko hausnarketa bultzatuz, erakusketak genero berdintasunerako eta maskulinitate eredu berri baterako jarraera aldatzea proposatzen du. Azken batean, gizonaren jarraera aktiboagoa aldarrikatu nahi du, “aldarrikapenez haratago, praxiaren konpromisotik ordena estetiko-politiko berriak ezartzeko asmoz”.

Denetik ikus daiteke erakusketa gelan: plantxatutako jantziekin osatutako zutabe galantak, otorduekin betetzeko zain dauden sukaldeko ontziak, etxeko objekturik hutsalenak argazki artistikoetara eramanak, aita bere buruz biluztuari argazki ateratzen...

*Erakusketa apirilaren 9ra arte egongo da zabalik, astelehenetik ostiralera, 18:00etatik 20:00etara, eta larunbatetan 18:00etatik 20:30era*

*Erakusketa Pello Ulazia egileak berak bizi izan duen esperientzia pertsonalaren ondorioa da. Argazkiez, bideoez eta eskulturez baliatu da*

Bizipen ezberdinak islatu nahi izan ditu argazkiekin, eskulturrekin eta bideoetan. Estetikaren atzean etika egon ohi dela gogorarazi dute elementu horietako askok, Ulaziak zehaztu duen bezala.

Ikus-entzunezkoetan, esate baterako, sukaldeko suaren garbiketa nahiz garbigailuaren prozesuak ageri dira, plano sekuentzian. Ulaziaren esanetan, sukaldea garbitzen ari zarela, hipnotizazio prozesu batean murgiltzen zara, eskuak egiten dituen marrazkiak automobilismoko zirkuitua dirudi. Garbigailuari begira-begira jartzen bazara, berriz, etxe barruko laisatasuna atemporal sentitzen duzu.

Azken batean, ekintza askok, nahiz eta errepikakorrek eta astunak gertatu, badaukate bere edertasuna. Erakusketa gelako beste tarte batean jarrita dagoen pantailan, aita eta seme edo alaba baten arteko jolasa islatzen dituzten irudiak ageri dira. “Ohikoa da eszena jakin bat: ikastetxetik atera ohi den haurrea korrika doa bere zain dautan aitarengana; txiribueta da elkarri diosala adierazteko lehenbiziko ekintza. Harreman afektiboa erakusten da horrela, baina bestetik bizitzaren metafora islatzen da: aitak bi besoeekin eta gorputzarekin euskarria jartzen dio, baina gero bizitza honetan aurrera egiteko ahalegina haurrari egokitzen zaio”.



Ikus-entzunezkoak, argazkiak eta objektuak erabili ditu erakusketan.



AIURRI.EUS WEBGUNEAN MANIFESTAZIOAREN BIDEOA ETA ARGAZKIAK

# Ehunka lagun irten zen kalera, erraustegiaren aurka

Osasunaren aldeko eta Zubietan jarri nahi den erraustegiaren aurkako martxan ehunka lagunek parte hartu zuten, Andoaingo kaleetan barrena. Larunbat arratsaldean Etxeberrieta plazatik irten zen

manifestazioa, eta jendea batzen joan zen bidean zehar; Nafarroa plazan mila pertsona inguru biltzeraino. Betteri-Donostian erraustegiaren aurkako ekimenak segida izango du.

**E**txeberrieta plazatik manifestariak "Osasuna bai, errausketarik ez" oihuka hasi ziren. Zumea plaza-tik eta Kale Berrian gora manifestariak gehituz joan ziren eta Nafarroa plazara iristeko mila inguru ziren bertaratu zirenak. Manifestazioaren amaieran Andoain herritarrek sortu berri duten Ipar Haizea elkarteak **Julen Begiristainek** eta **Garikoitz Plazaolak** parte hartu zuten, Osasuna eta errausketa ikerketa taldeko **Jose Maria Tellon** medikuarekin batera.

## IPAR HAIZEA TALDEAREN BALORAZIOA

Aiurri astekariari manifestazioaren inguruko balorazioa helarazi diote: "Larunbateko osasunaren aldeko martxaren balorazioa egiterakoan, poza agertu nahi dugu. Etxeberrieta plaza jende askorik ez



Kale Berrian ehunka lagun ziren manifestazioan Nafarroa plaza aldera zihoazenak.

zegoela ematen bazuen ere, ibilbidean zehar jende batzen joan zen eta denera mila lagun inguru bildu ginen. Urteak dira ez genuela Andoaineko hala manifestaziorik ikusi. Aipatzekoa da, inguruko herrietatik ere –Lasarte-Oria, Usurbil, Hernani, Amasa-Villabona, Zizurkil, Larraul– jende mordoska etorri zela.

Honek adierazten du errauskailuarena gero eta herritar gehiagorengan kezka sortzen duen gaia dela. Guk gure aldetik errausketaren inguruan informazioa zabaltzen jarraituko dugu, sensibilizazio kanpainak egiten jarraituko dugu. Eta bereziki, herritarrei maiatzaren 29ko data gordetzea eskatzen diogu, egun horretarako Gipuzkoa mailan lurrikara bat eragingo duen ekinza bat prestatzen ari gare-lako".

## Osasuna eta errausketa ikerketa taldea

Nafarroa plazako kioskoan, erraustegia eraikiko duten paisaia ikusten zelarik, **Jose Maria Tellon** medikuak adierazpena irakurri zuen: "Orain egun batzuk, prentsan argitaratu da amonaren kutxatik ateratako osasun arloko ikerketa bat. 2004koa da, eta egilea ez da ez sendagilea ezta osasun alorrekoa ere, argi eta garbi errausketa justifikatzeko. Ikerketen interpretazio makurrak egiten ditu. Ondorioak hitz ambiguoekin azaltzen ditu: "Ez dago arrisku erantsi signifikatiborik legeria errespetatzen duten planta modernoetan". Zenbat gaixotasun edo zenbat hildako dira eurentzat "arrisku signifikatiboa"? Bestalde, soberan dakigu industria horrek ez duela legea errespetatzen eta horregatik egin dira nonnahi hainbat epaiketa. Azkena, orain gutxi, Madrilen. Badaez-

pada ere, orduko Osasun publikoko buruzagiak arriskua "minimoa" zela esan zuen. Errauskailuaren ondoan bizi zirenei analisis egingo zitzaizkiela adierazi zuten. Ez ziren hain lasai egongo.

Ordezkatzen dudana **Osasuna eta errausketa ikerketa taldeak** sendotasun eta metodologiaren kalitateagatik gai honi buruzko ikerketa zientifiko serioenak aukeratu ditu eta hortan oinarrituz, baieztatu ahal dugu, 2004ko gure manifestuan plazaratu genuen moduan, hondakinen erretzea minbizi kasuen eta hilkortasunaren handitzearekin lotuta dagoela. Baita sortzetiko malformazioekin, eta eritasun kardiobaskular eta arnasbidekoekin. Datu tinko eta sendoak daude hori baieztatzeko, bereziki errauskailu batetik hamar kilometroko perimetroan bizi den popu-



Jose Maria Tellon medikua.

lazioaren kasuetan. Baita errauskailu modernoek kasuetan ere:

- Sortzetiko malformazioen hazkundeak: %30ekoa erbi ezpainaren eta %55ekoa giltzurrun malformazioetan.
- Minbizi kasu gehiago, eta hilkortasun tasa handiagoa:

%29koa gibel minbiziaren kasuan eta %14koa biriketako minbiziaren kasuan.

Madrilgo Carlos III Institutuak egindako ikerketa nabarmendu behar da. Estatuko erakunderik prestigiodunena da antzeko ikerketetan, eta 2012an estatuko orduko

errauskailu moderno askoren datuekin, minbizi kasu loturiko hilkortasunaren handiagotzea ondorioztatu zuen: pleurakoa %84ko igoera, besikulakoa %24koa eta %21koa leuzemiatan.

Ezagutza zientifikoak datu horiek eskaini ditu, eta osasun-langile garen moduan gure betebeharrak informazio hori zabaltzea dela uste dugu.

Horrelako azpiegiturak martxan jartzeko garaian, ondoko irizpideak funtsezkoak izan behar du: arreta edo prekauzio printzipioa biztanleria ez kaltezeko.

Ez dugu Gipuzkoako herritarrek eta, bereziki, gure familiak etorkizuneko beste zientzialarientzat errauskailuek sortutako minbiziaren eta beste patologia batzuen ikerketetan erreferentzia izaterik nahi".



# KIROL ALBISTEAK

## GRAVNIIn lehen partida



**NAFARROA 40-36 GIPUZKOA**  
GRAVNI. Julen Loitegi eta Eñaut Esnaola (argazkian), partida gogor baten ostean garaipena

lortu gabe etxeratu ziren. Partida zaila izan zen, eskarmen-tu handiko Santesteban-Luquin bikotearen aurka.

Loitegik eskuetatik oso eskas amaitu zuen, kantxan dena eman eta gero. 37-28 galtzen ari zirela, kementsu aritu ziren 37-36ra irits arte. Eñaut atzeko lerroetan bikain aritu zen. Ea eskuekin arazo gehiagorik ez duen, urnietarrek finalaurrekoetara iristeko maila dutelako. Presarik gabe erronkari ekin beharko diote, estatu mailako bikote onenak aurkari izango dituztelako.

## 24 orduko txapelketa

Pausokaren alde, 24 orduko areto futbol txapelketa antolatuta nahi dute Andoainen. Apirilaren 2an hasiko da eguerdiko 14:00etan eta biharamunean amaitu. Parte hartu nahi



duenak ehun euro ordaindu behar ditu. Txapelketan izena emateko epea martxoaren 25an amaituko da. Info: 629 542 943 Alberto. 620 017 219 Armando.

## Areto futbol txapelketa

**A taldea, emaitzak:**  
Centro Extremeño 3-4 DAD  
Txalaka – Ekhia  
Aure Maiton 1-2 Keler

**B taldea, emaitzak:**  
Ekaitz 1-7 Hogar Extremeño  
Ondarreta 2-10 Academia GF  
Drink Team 3-9 Pausoka

## Futbola, asteburuko partidak

**ERREGIONAL OHOREZKOA**  
26. jardunaldia:  
**Mutriku 1-1 Euskalduna**  
27. jardunaldia. Larunbata, 19:  
Euskalduna-Getaria. 17:45.

**PREFERENTE MUTILAK**  
23. jardunaldia:  
**Dunboa 0-2 Urnieta**  
24. jardunaldia. Larunbata, 19:  
Urnieta-Amara Berri. 18:15.

## Eskubaloia, senior maila

**SENIOR MUTILAK**  
19. jardunaldia:  
**Urnieta 27-30 Egia**  
**Leizaran 34-16 Zuauto**  
Saillkapena:  
1. Donibane 35  
2. Elgoibar 33  
6. Urnieta 22  
7. Leizaran 15

**SENIOR NESKAK**  
3. jardunaldia:  
**Munttarpe 18-19 Leizaran**  
**Ibaizabal 22-18 Urnieta**  
Saillkapena:  
1. Urduliz 5  
3. Unieta 4  
5. Leizaran 2  
6. Munttarpe 1

## Ganbara saski taldea

**Asteburuko emaitzak:**  
Ganbara SenM 49-42 TAKE  
Axular 38-49 Ganbara InfM

**Datorren jardunaldia:**  
Ganbara SenM-Andraitz B  
19:15. Allurralde. Larunbata, 19.

## Esperientzia gazi-gozaok emakumezkoen ibilbidean

“Emakumeak goi mailako kirolan: atzo, gaur eta bihar” mahai-ingurua izan zen pasa den astean Urnietan. **Ainhoa Ostolaza** txirrindulariak, **Idoia Esnaola** atletak, **Marijo Sardon** judoka eta harri-jasotzaileak, **Maidar Mendizabal** pilotariak eta **Nahikari Garcia** futbolariak hartu zuten parte **Ainhoa Azurmendik** gidatutako solasaldian.

Bakoitzak bere esperientziatik, emakume izateagatik jasandako egoerak kontatu zituzten. Maidarrek adierazi zuenez, askotan mespretxatu izan dituzte emakume pilotariak, gizonetzkoak baino indar gutxiago edukitzeagatik, pilotarako balio ez dutela sentiaraziz. Horren aurrean, Mari Josek uste du gizonetzkoen munduan sartu direla: “Pilota eta herri kirolak, betidanik gizonetzkoen kirolak izan dira, eta beraien eremuan sartu garela dirudi”. Ondorioz, diskriminazio egoerak jasan izan dituzte: emakumeentzako aldagaririk ez edukitzea, baliabide falta, dopin froga egiterakoan emakume medikurik ez egotea...

Futbolari dagokionez, ordea, aurrerapauso handiagoak eman



Aurreko astean mahai-inguruan parte hartu zuten kirolari eta kirolari ohiek.

direla uste dute. Nahikari Garcia, kirolarietan gazteenak, bestelako mundu bat ezagutu baitu: “Ez dut horrelako egoerarik jasan, izan ere, hori guztia eboluzionatuago dagoen garaian harrapatu nau ni. Egoera honetara iristeko ibilbide bat egon da aurretik eta norbaitek lan egin du horretan”.

Hala eta guztiz ere, oraindik borroka handia dagoela egiteko eta gainontzeko kirolletan aldaketa gutxi ikusten dutela azaldu zuten. Oihartzun mediatikoa ere hizpide izan zuten eta emakumeen presentzia eskasaz hitz egin zuten: “Gaur

egun, sare sozialek indar handiagoa hartu dute esparru honetan prentsa idatziak edo telebistank baino, Twitter eta Facebook bidez zabaltzen baitira horrelako albisteak”, azpimarratu zuen Ainhoa Ostolazak. Garai batean, kirola gizonetzkoekin lotutako ariketa bat bazen ere, gaur egun emakumeen esparrua ere izatea lortzen ari direla ondorioztatu zuten. Dena den, ez dute uste aurrera egin izana ospatu beharreko zerbait denik. Ez daude konforme eta etorkizunera begira parekidetasuna lortzeko ahaleginean jarraitu beharra dagoela aldarrikatzen dute.

## Zesta jokalaria eta zaletuen bilkura Basteron



Luis eta Fernando Urbistondo, Jon Barrondo, Igor Lizasoain eta Borja Garcia zesta jokalaria beterranoak eta gazteak. Haurrak, ezker eskuin, Sergi Alcon, Aimar Suarez, Unax Malo, Ilun Tolosa eta Markel Rodriguez “Jai Alai Blues” dokumentala ikusi aurretik. Filmaren ondoren, ikusleek jokalaria ohiei eta gaur egungoei galderak egiteko aukera izan zuten.



## KIROL ALBISTEAK

# Irrist-irri, Andoaingo patinatzaileen taldea

Patinatzea gogoko duten Andoaingo zenbait herritarrek talde bat osatu dute berriki. Ondarreta ikastetxeko patioan biltzen dira asteartero eta ostegunero, 20:00etatik 21:30etara. Elkarrekin ondo pasatzea eta kirola praktikatzea beste asmorik gabe jaio da taldea.

Irrist-irri jarri diote izena taldeari. **Elena Audikana** kideetako batek adierazi duenez, izenak ondo islatzen du gogoko duten filosofia: "patinak jantzita zelaian ibiltzea, umorea eta irribarrea inoiz galdu gabe".

Andoainean gero eta zaletasun handiagoa dago patinak jantzi eta irristaka ibiltzeko, Andoaingo kirol patronatuak antolatu izan dituen ikastaroetan ikusi ahal izan den bezala. Gauzak horrela, Irrist-irri taldeak gonbidapena luzatu die horiei guztiei, Ondarretako patioa hurbil daitezten, beldurrik eta lotsak uxatuta. "Zaletasuna partekatu nahi dugu herrikideekin, eta esku zabalik hartuko dugu etortzen den edonor".

Taldeak ikastarorik ematen ez duela zehaztu nahi izan dute. Alde horretatik, patinak hartzeko gogo sortu zaion horri gomendatzen diote izena eman dezan eskualdean kirol patronatuek edo eta patinatzaileen taldeek antolatzen dituzten ikastaroetan, gutxieneko nozioak ikasi ditzan.

Ondarretako patioan maila guztietako patinatzaileak bil-



Jokin, Aloña, Maripi, Nerea eta Mari Mar zutik. Behean, Amagoia, Elena eta Sindy.

tzen dira asteartero eta ostegunero. "Hasi berriak eta trebatu samarrak, denetik gaude. Baita adin ezberdinetakoak, zaharrenek 69 urte ditu, egin kontu". Eskarmentua hartzeko denetarik ariketak egin ohi dituzte: orekaren lanketa, oztopoak gainditzea, frenatzen ikastea...

Astegunetako bi hitzorduez gain, asteburuetan ere bildu ohi dira: "igandetan geratzen gara, Goierrri edo Donostia al-

deko bidegorrietan ibiltzeko. Bizpahiru orduko irteerak izaten dira eta gozatu ederra hartzen dugu, oso lagun giro politoan ibiltzen gara".

Irrist-irri taldea osatzen duten patinatzaileak oso pozik daude leku egokia topatu dutelako eta alde horretatik jarritako erraztasunagatik eskerrak eman nahi dizkiete Andoaingo Udalarri, Allurralde patronatuarri eta Ondarreta ikastetxeari.



Andoainean gero eta zelatasun handiago dago patinak jantzi eta irristaka ibiltzeko.

# Euskara erabiltzeko konpromisoa hartu dute

Andoaingo Udalak herriko hamar kirol elkartekin euskaren erabilera areagotzeko hitzarmena sinatu zuen. Honakoak izan ziren ekitaldira hurbildu ziren elkarteak: Euskalduna futbol taldea, Euskalduna mendigoizale elkartea, Ganbara saski taldea, judo elkartea, Leitz elkartea, Gazteleku pilota eskola, Oskarbi gimnasia erritmiko taldea, Leizaran eskubaloia, Zumeatarra eta Andoaingo txirrindulari eskola.



Konpromisoa hartu duten kirol elkarteetako ordezkariak, Bastero kulturunean.

## Ezustea Adarramendin



Astehenetik postontzia eusten duen harria erditik hautsita dago.

Astehenean sare sozialen bitartez hedatu zen irudia. Horrela zioen Andoni Urbisondok twitter sarean: "Adarramendiko postontzia horrela zegoen gaur goizean. Tximistaren bat? Haizea? Mikel

Txusterrena da argazkia". Ordu gutxira, @MeteoAndoain erabiltzaileak lehengo eta ondorengo egoera irudikatzen zuten muntaia argitaratu zuen. Ekaitzaren ondorioz izan dela dirudi.



Adarramendi gaineko postontzia, lehen eta orain.

## Andoaingo txirrindulariak

### BEASAIN, MARTXOAK 12

Alebinak:

1. Dani Fursenko (Andoaingo)
6. Igoi Pikabea (Andoaingo)
10. Iker Balbas (Andoaingo)
14. Ibai Vela (Andoaingo)
18. Izaro Zuriarrain (Andoaingo)
19. Odei Zabala (Andoaingo)

Infantilak, errepidea:

1. Joanes Telleria (Ampo)
8. Laiene Pikabea (Andoaingo)
9. Maddi Rodriguez (Andoaingo)
12. Unai Galarza (Andoaingo)
19. Ibai Omeñaka (Andoaingo)

Infantilak, erlojuaren kontra:

1. Joanes Telleria (Ampo)
  4. Ibai Omeñaka (Andoaingo)
  5. Unai Galarza (Andoaingo)
- Neskak:
1. Maddi Rodriguez (Andoaingo)
  3. Laiene Pikabea (Andoaingo)

### EGIA, MARTXOAK 13

Jubenilak:

1. Eneko Martinez (Iturribero)
2. Luken Carbayeda (Buruntza)
3. Aitzol Odriozola (A.Sanz)
13. Ander Amonarriz (Andoaingo)



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

